

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala:	0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	120 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea
Funtzionala:	433 - Enpresa garapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea sustatu, kanpora ireki daitezen lagunduz, hurbilketaren bidez, hazkundearen bidez eta nazioarteko merkatuetan egonkortzearen bidez, esportazioen balorea handitzeko batetik, eta kanpoan saltzen duten enpresa kopurua handitzeko bestetik.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoak BPGd-aren % 2,2ko hazkundearekin eta enpleguaren portaera onarekin itxi zuen 2024. urtea, gure kanpo merkatu nagusien ahultasun agertoki batean eta mundu mailako ziurgabetasun maila handiko testuinguru batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren datuen arabera:

-Gipuzkoako enpresek 2024. urtea itxi zuten salmenten % 0,7ko igoerarekin, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Hazkunde hori barne salmenten igoeraren ondorioa da (% 1,7), esportazioak % 1,0 jaitsi baitira. Hala ere, esportazioek errekor historikoetan jarraitzen dute azken ekitaldietan.

-Guztizko salmenten igoera zerbitzuen sektorean izandako portaera onari zor zaio (+% 2,1); izan ere, industrian ez da aldaketarik izan, eta eraikuntzan salmentak % 3,9 jaitsi dira.

-Nazioarteko testuinguru ekonomikoaren ahultasunaren eta ziurgabetasunen ondorioz, 2024an Gipuzkoako enpresen esportazioak % 1,0 murriztu dira. Eta hori bereziki nabari da Europako herrialde nagusien geldialdian eta ahulezian; izan ere, EBrako esportazioak % 4,0 jaitsi dira, eta gainerako herrialdeetara egindako salmentak % 2,7 igo dira.

2024an, Gipuzkoako bezero nagusiak Frantzia (guztizkoaren % 16,3), Alemania (% 9,4), Estatu Batuak (% 8,3) eta Erresuma Batua (gure esportazioen % 6,2) izan ziren. Eremu geografikoen arabera, Gipuzkoatik Europara egindako esportazioa % 65,8koa da (% 5,5 jaitsi da 2023ko urtarrila-abendua aldiarekin alderatuta), Ipar Amerikara % 9,6 esportatzen da (% 3,6 hazi da), Latinoamerikara % 8,9 (% 24,5 hazi da); Asiara egindako esportazioak % 11,0 dira (% 5,4 hazi da), eta Afrikara % 3,1 (% 4,6 hazi da 2024an). Sektoreka, ekipamenduko ondasunen sektorea esportazio guztien % 56,5 da, eta urte arteko hazkundea % 2,9koa izan da. Horren atzetik datoz erdianufakturaren sektorea (% 22,7 eta % 5,8ko jaitsiera) eta automobilen sektorea (% 10,5 eta % 3,3ko hazkundea). Gipuzkoako estaldura tasa % 185,2koa izan da, Euskal Autonomia Erkidegokoa % 114,5ekoa eta Espainiakoa % 90,5ekoa.

2025erako, eta Gipuzkoako Ganberaren perspektiben txostenaren arabera, Gipuzkoako enpresek aurreikusten dute beren negozio-zifrak zertxobait hobetuko direla, zailtasunak izango dituztela sektore jakin batzuetan, eta esportazio-itxaropen onak izango dituztela, Europako merkatu nagusietan eskariaren ahuleziak jarraitzen duen agertoki batean. Hala ere, nazioarteko testuinguruak zuhurtzia eskatzen du. Politika ekonomikoaren ziurgabetasun adierazleak izugarri igo dira mundu osoan, pandemian lortutako mailak gaindituz. Estatu Batuetako administrazio berriaren muga-zergen politikak eta, batez ere, haren kudeaketak sortzen duen ziurgabetasunak ekonomiaren hazkunde ahalmena higatuko dute.

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekitasun handia erakusten du, nazioarteko merkatuetara zuzendutako 100 eurotik % 35,3 baino gehiagorekin. 2008ko krisiaren aurretik, esportazioen pisua % 25 ingurukoa zen, eta horrek esan nahi du kanpo-salmentak ehuneko 10 puntu igo direla hamabost urtean gutxi gorabehera.

Azken ekitaldietan emaitza onak izan arren esportazioen errekorrekin (2023an hamar mila milioi eurotik gorakoak izan ziren lehen aldiz nazioarteko salmentetan), 2024an % 1eko beherakada txiki bat izan zen, Europako herrialde nagusien ahuleziaren ondorioz. 2025erako egoera zalantzazkoa da, nazioarteko merkataritzari eragiten dioten gatazka geopolitiko eta komertzialen ondorioz.

Beraz, Gipuzkoako enpresek beren merkatu tradizionalak sendotzeko beharrean jarraitzen dute,

alternatibak aztertzen dituzten bitartean, geografikoki dibertsifikatuz eta aukerak bilatuz Europakoak baino hazkunde proiektio handiagoak dituzten herrialdeetan. Funtsezkoa da merkatuak dibertsifikatzen jarraitzea, batez ere Europak, historikoki tokiko enpresentzat helmuga nagusia izan denak, hazkunde txikia erakusten duelako. Alemaniako ekonomiaren geldialdiak, merkatu nagusietako bat denak eta euroeskualdean eragin handia duenak, ziurgabetasun egoera horretan laguntzen du.

Gero eta globalizatuagoa eta interkonektatuagoa dagoen mundu honetan, nazioartekotzea ezinbestekoa da enpresak mantendu, indartu eta hazteko. Nahiz eta teknologiak erraztu duen enpresa txikiak ere nazioartera zabaltzea daitezkeela kostuak murrizteari esker, datuek iradokitzen dute enpresen tamainak garrantzitsua izaten jarraitzen duela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, laguntza programen bidez eta Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, ahalegin esanguratsuak egiten jarraitzen du enpresei eraldaketa bizkortzeko baliabideak emateko, bai digitalki, bai nazioarteko merkatuetan duten presentziari dagokionez.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako enpresak: ETEak eta OTEBak lehentasunez.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Gipuzkoako enpresak nazioartekotzen laguntzeko laguntzak diseinatzea eta kudeatzea.

Kanpoko merkatuetara jotzeko laguntza (merkataritza-harremanak eta laguntza publikoak kontuan hartuta) eta aukerak aztertzea eta hemengoen artean ezagutaraztea.

Nazioartekotze-eragileekin lankidetzan aritzea

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Dirulaguntzak

Informazioa nazioarteko merkatuei buruz

Nazioarteko merkatuetarako joateko babesak

Laguntza teknikoak

Programaren arau esparrua:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak jasotzen dituen araudia. Administrazio arloko arautegi orokorra.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Gaitasun eta aukera lehiakorak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lagundutako nazioartekotzerako proiektu kopurua	Kopurua	>=	51,00	37,00	35,00	120,00
Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%)	Ehunekoak	=	88,00	85,00	85,00	85,00
Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan	Kopurua	=	8,00	8,00	10,00	20,00

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
sortutako edo bizkortutako enpresak						
Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak						
1. Ekintza lerroa: Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.						
 % 81,49	 % 18,28	 % 0,23				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	1.444.744,00	675.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
1.1 Ekintza Gipuzkoako enpresaren nazioartekotzea sustatzea	941.423,90	398.500,00		2026/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Eragile sozioekonomikoekin hitzartutako ekintza, enpresa esportatzaileen oinarria handitzeko	500.000,00	275.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berriak txertatu.	3.320,10	1.500,00		2026/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzarioa, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen da, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikaturako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibiltate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Dirulaguntza eskatzaileekin lehenetsi harremana euskaraz izatea.

Diruz lagundutako jardueren gizarteratze prozesuetan euskararen presentzia bermatzea.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Enplegu duina eta giza hazkundera sortzea, hazkunde ekonomiko jasangarria sustatuz produktibitate-mailak eta berrikuntza teknologikoa areagotuz, eta, era berean, enpresa-espirtua eta kalitatezko enplegua sortzeko politikak sustatuz, desberdintasun sozialak murriztea ahalbidetuz.

Hori guztia Etorkizuna eraikiz ekariz bultzatutako elkarlaneko gobernantzaren kontzeptuaren esparruan, politika publikoen diseinua eta eraginkortasuna hobetzeko.

Kuantifikazioa: 2.119.744,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	1.191.423,90	536.000,00
	Guztionez hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.		
Helburua	8.02 - Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.	1.191.423,90	536.000,00
Ekintza lerroak			
Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.		1.191.423,90	536.000,00
	17-Helburuak lortzeko aliantza	250.000,00	137.500,00
	Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.		
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	250.000,00	137.500,00
Ekintza lerroak			
Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.		250.000,00	137.500,00
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna	3.320,10	1.500,00
	Kultura eta hizkuntza aniztasuna		
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	3.320,10	1.500,00
Ekintza lerroak			
Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.		3.320,10	1.500,00
Guztira		1.444.744,00	675.000,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL							
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS							
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	825.923,00	1.164.022,00	575.000,00				575.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	825.923,00	1.164.022,00	575.000,00				575.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	215.009,00	280.722,00	100.000,00				100.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	215.009,00	280.722,00	100.000,00				100.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	1.040.932,00	1.444.744,00	675.000,00				675.000,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL						
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS						
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.164.022,00		575.000,00		1.739.022,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.164.022,00		575.000,00		1.739.022,00	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	280.722,00		100.000,00		380.722,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	280.722,00		100.000,00		380.722,00	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	1.444.744,00		675.000,00		2.119.744,00	